

FILOSOFIA PERENNEA

1.- Ganorazko filosofia Socratesekin hasten da ipintzen duela-rik ciencia ororen hastea arrazonamendu inductivoan, bilatuz objeto material diferenteen definicio universalak. Hor dago edozein ezagutzaren lehen zimentarria.

Hortik aurrera Aristotelesek lortu zuen, zimentarri hori ahaztu gabe, jakina, ganorazko filosofiaren garapen osoa eta completoa, eta ni centraturako naiz mugimenduaren lau causen teorian, escolasticaren garaian actualizatzeak eduki zituen eta gaur egun ere, aurrerapen batzuk direla medio, eztabaida batzuk behar dituztenak, actualizatua, baina afirmatzera atrevitzen naiz orokorrean perfectoa ere dela, eta hortik articulo honen tituloa: filosofia perennea.

Causa materialaz esan daiteke betikoa, materiazkoa berez potencialitatea dela, eta materiaren potencialitate maximoa, niretzat, ezereza da, beraz gu, primarioki materiazkoak, ezerezetik gatoz.

Gero gaur egun oso predicamentu handia hartu du evolucionismoak, eta materialista ateoek erabiltzen dute fededunon creacionismoaren contra. Baina hor ere nik, filosofiaren ardatza den logicaren cienciatik (instrumentua baino gehiago da niretzat) descubritu dut ezen ciencia oro, naturala ere, biologia ere, hasten den arrazonamendu inductivotik, eta induccioa bal-

din bada hastea beti, denok dakigu ezen induccioan hasten den teoria sekula ezin dela demostracio bihurtu, eta hori egin zuen Darwinek, falacia batean erori zen, datu mordoa emanez, egia, baina ezin demostratu daiteke alteracio cromosomicoak, anomalia geneticoak edo mutacioak ere, izaten ahal direnak, eta izaten direnak, horiek egia izanik, ezin demostratu daiteke evolucion bat egon denik materia hutsetik homo sapiens “falaciensis” delakoraino. Nik ez dut problemarik ikasten hor, suspensoan lagatzen dut teoria hori. Bide batetik edo bestetik creaturak gara beti.

Causa formalaz lehenbizi simplificatu egingo dut formaz zer comprenitzen den. Objeto material baten forma (grekeraz idea) da ikertzen dena bere definicioa bilatzen dugularik, eta objeto horren definicio universal da objeto horren esencia. Nonbait esan daiteke ezen forman dena emana zaigula, baina lana behar da, beharra (causa eficientea dena), actualizatu dezagun objeto horren definicioa. Zeren objeto horren definicioan, zehazten, infinituraino iristen baikara. Zergatik?, materia mutablea delako, materia actividadea delako, eta hola izanik cosmos materiala, ezinezkoa egiten da beti objetoen definicio egiazki universalak aurkitzea, beti dago aurreratzerik, beti da gure unean uneko ciencia hobegarria, beti baita imperfectoa.

Causa eficienteaz esaten ahal da ezen dela lana, beharra bizkaieraz, eta lanaren bitartez unean uneko ciencia actualizatu da, casurik onenean hoberako, hau da, aurrerapenekin, eta horrek esan nahi du ezen gero eta hobeto ezagutzen dugula cosmos material hau, modu xumean esanda. Edo Aristotelesek esango lukeen moduan potencian dakiguna actuan dakigu causa eficientearen eraginez. Baina actualizatzeak, cosmos honen historian zehar, beti izango dira beharrezkoak, esan dugulako ezinezkoa zaigula definicio perfectorik, hau da, beti ope ratzen dugu definicio hipotetikoekin, beti direlako denak hobegarriak.

Causa finalaz esan daiteke ezen hasten dela cosmos honen definicio universalarekin, ez dela ezer geratzen definicio horretan ezer potencialik, dena baita actoa. Horrek esan nahi du, kantismotik hartua dugula terminologia hau, horrek esan nahi du ezen causa finala dela cosmos honen ezagutza universalak, arrazoi garbia, zeina esperiencia orotik gaisetik dagoen, hau da, cosmos material honetan lortu ezina da. Baina hartara daude luzatuak begirakune guztiak, izan fedegabe ala fededun.

Lehengunean Jesus Mari deritzan lagun batek oso modan dagoen galdera bat egin zidan. Suposa dezagun civilizacio estraterrestre bat gurea baino aurrerratuagoa, eta esan zidan ezen horrek esan nahi zuela guk baino espiritualidade hobea, aurrerratuagoa, edukiko zuela civilizacio hipotetiko horrek. Baina ni ez nintzen ados nire lagunakin. Esan nion ezen galdetu behar zela ea revelacioaren historiarik eduki duten. Zeren ez badute eduki revelaciorik, modu batean edo bestean, baina ganorazko revelaciorik, orduan litekeena da civilizacio hori izatea aurrerratuagoa baina espiritualidade aurrerratuagoa baino izatea cientifista materialista, eta ciencian aurrerratuagoak izatea, suposatu dugun moduan, baina batere espiritualidaderik gabea. Escepticoak, azken batean, segurutikan kantismoan escepticismoa planteatzen den moduan, hau da, jakiteko ea posible den “espiritualidaderik” galdera hau, edo antzerakoa, agian zehatzagoa, hobea, galdera hau egina dutela, posible ahal dira juicio sinteticoak a priori, posible ahal da ezagutza universalik, causa finalik, eta nola ez duten revelaciorik ezagutu erantzuna escepticoa da, eta cientifista materialistak dira beste barik, edo agian Aristotelesen moduan esan ahal dute ezen causa finala, acto garbia bezala definitua, balitekeela esistitzea, baina ez dela providenciala, beraz, esistitu ala ez alferrikakoa da espiritualidadean ariketa oro. Galduak gaude ezinbestean, beraz, hori erranen lukete “estraterrestre” horiek casu horretan..

Guk, ostera, badugu ezagutzen revelacioaren historia bat, eta Kantek egin zuen galderari erantzuten diogu baietz, badire-

la posible juicio sintetikoak a priori, guk ezin egin ditugula, baina personaje historiko bat dugula, Jesus nazarethekoa, zeinak Berak Bere baitatik egiten zituena, eta beraz, causa finalaz optimistak gara, cosmos material honetan gure bizimodua usualki tristea izaten bada ere, Jeremiasek ondo idatzita laga zuen modukoa ere batzuetan.

Regla nemotecnico erreza dut guzti hau gogoratzeko, Aristotelesen mugimenduaren lau causen teoria da, actualizatua.

2.- Alferrik ahalegin oro ala ez?, lagako diogu lan egiteari?. Bi bide teorico daude, bi filosofia aldarrikatzen dutenak perennetasuna, ea demostratua lagatzen dudan zein den egiazki perennea.

Fundamentalean norberak erabakitzen du zer bide hartu. Hau da, ciencia politicoan gure constitucioan argi geratu behar da askatasun erlijiosoaren aldekoak garela. Ez garela sectarioak. Eta constitucio hori izango litzateke, politicarekin jarraituz, internacionala, eta ez imperiala, ondo pensatuz gero eredu internacionala universalagoa delako (ezagutzen, erreconocitzen, duelako hobeto), eta hizkuntzen arazoa lingua franca bat erabakiz constitucio horretan compontzen da. Baina horiek nire imaginacioak dira civilizacio hipotetico bati begira, nire argumentu batzuk ciencia politicoan.

Planteatzen dut galdera hau: Jesusen zerbitzari, itsu itsuan ala argumentatuta?. Argumentatuta perfectoagoa da, zeren, eman dezagun, edozein dela Jesusekin eduki dezakegun eztabaida galtzaileak beti gara gu, ni bai behintzat, eta ni arrazoia- ren nagusitasunaz comentzituta banago, gustu handiz jartzen naiz Jesusen zerbitzura. Hemen ere bada ageri nire vanidatea, nahiz eta arrazoia duena Jesus den eta ez nire vanidatea. Vistan dago.

Nire ametsa: civilizacio bat aurrera doana eta buruan enarbolatzen duena gurutzea, hau da, civilizacio bat jakintsua. Bai-

na ez derrigorrean tristea gurutzea enarbolatzen dugulako denen buru. Comprenitu bedi.

Nik hori planteatzen dut catolicoen batzarran (ecclesian) helburu gisa, eta nire ondorioek diote arrazoirik ez dugula faltan, eta bai soberan. Arrazoi nagusien artean nagusiena ere gurea da. Eta ni nire fedea arrazoitzen ari naiz.

3.- Azken batean nire izaera zer da?, igarotzea?, hori bada, hori ondorioztatzen dutenek onartu behar didate horrekin funtsean ez dela ezer argitzen (beraz, ez dute farorik ere, eta asmatzen ahal badituzte, eta asmatzen dira, faro horiek ezin izan dira ganorazkoak (gaur egungo ganorabareko bat: Gustavo Bueno filosofoa)). Ala nire izaera substanciala da filosofoak demostratzen duen moduan?. Eta filosofoari jarraituz, agian demostracio gehiago eta definitivoagoak eginenez, badaiteke esan ezen hortik badela asko argitzen bidea, hartu behar dena estropuzurik egin ez dezagun, behintzat ahalik eta gutxien. Humanoak gara, jakina.

Egin izan da sailkapen bat filosofian, eta filosofoak izaten ei dira edo materialistak edo idealistak. Materialistak dira pentsatzen dutenak, azken finean, dena igarotzea dela, eta egiazta-pen hortatik at ez dagoela ezer. Idealistak dira formalistak grekeraz, eta funtsean aristotelicoak dira, eta gure izaera substancialaz teorizatzen dute, hau da gu gara, bizidunok, gizonok, materia bat bere forma humanoarekin, eta forma hori da arima inmortal dena. Baina filosofia formalistak bere indar soilez ezin du hori demostratu definitivoki, bakarrik idealista baino sobrenaturalista izanik (ni sobrenaturalista naiz) teorizacio formalista asentatua da egiazki ondo bere zimentuen gainean, eta teorizacio hori da, actualizatu tomismoan, Eliza catolicoak hartu duena beretzat, hori da filosofia cristaua deritzana. Nire ondorioen arabera perennea, Alianzaren modukoa, zaharra eta betikoa dena, Jesusek actualizatu baitzuen Alianza hori, ez aldatu, ezta ere, jakina, “superatu” (super, soberbia).

Epilogo.- 3. Apartadoan ez dut aipatu ere egin idealismo alemana, garbi dago ezen nik ia ia ignoratu ere egiten dudala, zeren baita degeneracio bat bere haste hastetik, zeina baitago Kanten filosofian, bereziki filosofia transcendentalean(?), eta handik, personak direlako aipatzen ditut, Fichte, Shelling eta Hegel, gero hegeliano ezkerrekoak datozke, nondik materialismo alemana sortuko den marxismoan gauzatua (Marx eta Engels), eta materialismo hori ere aberrantea da filosofia oso bat bezala presentatzen denean, eta soilik ikasten dut zerbait interesantea marxismoan usuraren inguruan egiten den estudioan (plusvaliaren teoria, adibidez), eta hori da bakarrik interesantea ciencia politicoan, eta hori diot etica catolicotik (bekatu capitala den avariciaren nire “goi mailako” estudioak hor daude) politicara pasatzerakoan. Baina Alemaniatic datorkigun sailkapen hori idealismoaren eta materialismoaren artean, behintzak alemanak direnak, errepikatzen dut, degeneracio hutsa dira. Eta nola aipamen handia hartua duten circulo intelectualetan eta filosofo “nagusien” artean, horregatik erabaki dut nik ere nire comentarioa egitea guzti horren gainean.

Filosofia alemanak hartu dituen derroteroak estudiantzen jarraituz nabarmen ezagunak dira “borondatearen filosofoak”, Shopenhauer eta Nietzsche, eta borondatea universal bihurtua da filosofia horretan (ignoraturuz escolastican ikasia, hau da, borondatearen gainetik intelectoa dagoela, bizitza intelectivoa izanik bizitza gorena mundu honetan), eta ondorioz elkarren arteko etsaitasuna, eta gerra, pauso bat logican errepresentatua izan daitekeena, izanik falaciazkoa. Zeren gerra ez baita universal bat, particularidade estudiagarria baizik. Nahikoa esan dut.

Eta gero hor dago Darwin naturalista inglesa, eta arrazonatua dut nik nahiago dudala, aukeran, Linneo bat. Darwinismoa, evolucionismoa, ezagutu daiteke eman dituen fruituetatik ere, arrazakeriaren hazia izan da eta XX. Mendean egin diren izugarrikerien sustento “cientifico” ere bada izan, beraz inmora-

lak omen gara ezinbestez humanoak, natura osoa, teoria horren argitara. Arrazoiakin dio Aristotelesek ezen causa efectoen serie infinituak hondatu egiten duela ongiaren ideia oro.

Eta superatzen aurrekoa iritsi gara gaur egungo panoramara, eta ni hainbeste absurdoen artean itzuli naiz afirmatzera ondo esanda dagoena ez dagoela “superatzerik” absurdoan erori gabe, eta aristotelismoaren substancialena hartu dut egiazkotzat (hasi irakurtzen articulo hau berriro), eta filosofia cristaua, ezagutza berriekin actualizatuz aristotelismoa, garaian garaikoa, daukat ezen dela benetan egiari hur ematen diona, eta egia esigentea da, eta bide estu hortatik, egiaren maitasunak marcatzen didana, dihardut nire filosofia desarroilatzen eta garatzen. (Etienne Gilson filosofoak oso ondo erakusten du zein den filosofia cristaua, catolicook duguna, “introduccion a la filosofia cristiana” liburu erreza laburrean).

Ez ditut denak aipatu, baina denak dira aipagarriak arrazoi honengatik: alde batetik personak direlako eta gero erroreetatik asko ikasten ahal delako, hori egia da, bai, baina ikasten hasten da errore batetik errore hortatik ateratzean, ez lehenago, vistan dago. Horregatik filosofiaren historia estudiatzerakoan onuragarria da denak ere aipatzea eta analizatzea, eta errefutagarriak direnak errefutatu argumentuekin, ahalik eta argien. Modu horretan adartze ustelak podatuz Jaunaren mahastia, filosofia cristaua, hobeto nabarmentzen da, bere egiazkotasunean, beste guztien gainetik.

Epilogo - 2.- Esenciala da filosofia cristauan Aita gurean esaten den parrafo hau: santificatua izan bedi Zure Izena, hau da, beti gure averiguacioetan Aitaren izaera ondorioztatzen dela guztiz santua, cristauon Jainkoa dela hiru bider santua, santisimoa eta hola, eta hortik confiantzakin iristen gara fededun izatera cristauok, beldur gutxiagorekin eta hola, equilibratuago nonbait han. Eta bazen escolastican filosofo bat, franciscanua, Ockhan deritzana, nominalista zena, baina horregatik ez dut

orain ekarri hona eta bai ez zelako nabarmendu gehiegi Aitar-
ren izena santificatzen, alderantzizkoa egin zuen, eta hori bai
dela adartze bat ustela, mahazti osoa alferrik galdu dezakeena
podatzen ez bada ondo. Eta nik daukat materialistatzat eta an-
glicanismoaren precursoretzat. Nonbait filosofia cristaua sobre-
naturalismorik gabe ezin ondoriotatzen da filosofia naturaletik,
zeina bere indar soilez alcance escasa baitu, eta materialis-
moan erortzen da, eta agian esan daiteke ezen denok erortzen
gara materialismoan etengabe ez bada revelacioagatik, eta so-
brenaturalismoak egiten du filosofia cristaua perenne egiazki,
sekula ez gure ahalegin soilak halako laguntzarik gabe.

Roman Garmendia.